

ELGFERA

ALEX ETA ESTHER
OBRA ZIBILEKO
IKASLEAK

A photograph of three students in a grassy field. A woman on the left, wearing a blue face mask and a plaid jacket, holds a surveying staff. Two men stand next to her; one is adjusting a yellow surveying instrument on a tripod. The background is a dense thicket of green bushes and trees.

"Jendeak telebistarako
zerbait grabatzen ote
gauden galdetzen digu"



- 3 Inkesta
- 4 Elkarriketa
- 6 Tailerikasi proiektua
- 7 Lanbide heziketa
- 8 Euskoskills 2021
- 10 Ikus-entzunezkoak
- 12 Erreportajea
- 14 Komikia
- 15 Kahoot
- 16 Berri faltsuen dekalogoak
- 18 Tresna digitalak
- 20 Gure kosta
- 22 Historiaurrea
- 24 Bitxikeriak
- 26 Bertsoak
- 26 Euskararen eguneko irudiak

Aurkibidea



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegoza HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B01eko eta B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.800. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com



Zergatik uste duzu beharrezkoak direla talde feministak ikastetxean edota gizartean gaur egun?



Alaitz Gonzalez, Uxue Perez eta Markel Redondo (DBH 3. maila)



Ane Mendigutxia

Nik uste dut beharrezkoak direla, gaur egun emakumeok egoera txarra jasaten dugulako eta beharrezkoa delako, eskolan edota edozein lekutan, jendeak jakitea berdintasuna ezinbestekoa dela eta emakumeok ere berdintasuna nahi dugula.



Bilal Bouqhour

Beharrezkoa da talde feminista bat gure eskolan eta gizartean. Jende guztia, batez ere gazteak kontzientziazteko, nahitaezkoa delako emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezagutzea, berdinak direla eta eskubide berberak dituztela.




Edurne Dominguez

Nire ustez, gizartean oraindik aldaketak behar dira eta pauso txiki hauekin berdintasuna posiblea dela ikusten da.



Saad Amri Azami

Talde feministak garrantzi handikoak dira gaur egungo gizartean. Haiei esker pertsona gehiago kontzientzia daitezke feminismoaren inguruan. Hau lortzean erdietsi ahaliko dugu berdintasuna.



Gara Medrano

Eguno gizartean oraindik matxismo handia dagoelako, baita jarrera matxista asko ere. Eskola batean beharrezkoa da ikasleek jakitea zein jarrera matxista ez diren eduki behar eta horretarako talde feminista batek asko lagun dezake.



Jon Gomez

Gizartea berdina izan behar delako gizon eta emakumeentzat. Ezin dira egon alde batean eskubide gehiago eta bestean gutxiago. Emakumeek gizonen eskubide berberak izan behar dituzte.



Mundua aurrera doa eta geu berarekin. Derrigorrean trebatu behar gara teknologia berrietan

EGILEAK: Josu Ajuria, Esther Merikl eta Alex Castro



Alexek eta Estherrek Obra Zibileko Goi Mailako Teknikaria izateko ikasketak hasi berri dituzte CIFP Elorrieta-Errekamari LHII ikastetxean. Euren lehenengo urtea da ikastetxean, eta hile biren buruan atera dituzten inpresioak partekatu nahi izan dituzte gurekin.

Lanbide Heziketa hasi aurretik, zein izan da zuen ibilbide akademikoa?

Esther: Ni ez naiz berria LH-n. Goi mailako ziklo bat egin nuen Administrazioa eta Ku-deaketan, CIFP Txurdinaga LHII ikastetxean. Aurretik Batxilergo zientifikoa egin nuen, IES Martín de Bertendona BHI ikastetxean, Bilbon.

Alex: Ni ere ez naiz berria. Izan ere, Mekani-zazioko Teknikaria izateko ikasketak egin ditut. Erdi mailako ziklo bat da eta ondoren goi mailako Fabrikazio Mekanikoko Diseinua ikasi dut, biak ere, CIFP Txurdinaga LHII ikastetxean. Aurretik Oteitza Lizeo Politeknikoan egon nintzen. Zarauztarra naiz eta bertan egin ditut nire ikasketa gehienak.

Biak zatozte Lanbide Heziketaren mundu-tik beraz. Zerk motibatu zaituzte Obra Zibila ikastera?

E: Irakasgaiak oso gustuko ditut.

A: Ni ere antzeko; Obra Zibileko Proiektuetako Goi Mailako Teknikaria izateko ikasketak Interneten arakatu eta erakargarriak iruditu zitzaizkidan.

Ikasketa hauek aukeratzean lan munduan pentsatu duzue? Nolako obretan gustatuko litzaizueke lan egitea?

E: Nik egia esan nahiago dut bulegoko lana kalleko lana baino. Dena den, gaur egun behintzat,

edozein eraikinetan lan egingo nuke. Ez dut horretan gehiegi pentsatu.

A: Bulegoan eta eraikinen arloan, nahiz eta ikasketak obra zibilen arloan gauzatu, eraikinen arloak iteera profesional hobeak ditu.

Esther, obra mundua gizonen lan mundua dela uste duzu?

E: Lehen bai agian, baina aldatu dela uste dut. Orain klasearen laurdena emakumeak gara. Emakume erreferente gutxiago baina ezagunak dira hauek.

Imajinatzen dugu obra munduan erabiltzen den teknologia izugarritzko aldaketak jasan dituela azken urteetan. Teknologia berrietan trebatu beharra dagoela uste duzue?

E: Bai noski, mundua aurrera doa eta geu bera erekin, berritu egin behar gara.

A: Bai hala da, eta derrigorrean trebatu behar gara gu ere teknologia berrietan. Makina berriek lan merkatua zabaltzen dute.

Atentzioa ematen digute beti kalean zuen lanetan diharduen jendeak. Eman ahal diguzue ikasgelan erabiltzen dituzuen gailuen berri?

E: Behagailu osoa. Angelu eta distantziak neurtzen ditu plano bateko puntu guztien koordenatuak kalkulatu ahal izateko. Ziur nago denek ezagutzen duzuela instrumentu topografiko hau; tripode hori handi baten gainean jartzen de bideokameraren antzekoa berau. Kaleko jendeak telebistarako zerbait grabatzen ote gauden galdetzen digu beti...

A: 3D laser eskanerra. Milioika puntu jasotzeko gai da. Puntu hauek 3D modeloa osatzeko gai dira errealtate birtual bat sortzeko. "Google Maps"-eko "Street View"-ko 360° argazki guztiak egiteko horrelako 3D eskanerra behar da. Kotxe baten gainean jarri ahal da "Street View"-ko irudiak lortzeko, baina guk tripode gainean jartzen dugu eraikinak, zubiak eta errepideen 360° argazkiak egiteko eta "Autocad"-en modelo tridimentsionalekin lan egiteko.

E: Dronea. Urrutiko agintedun hegazkintxo da eta ikastetxeak irudiak eta bideoak jasotzeko da, guk ondoren errealtate birtual bat sortzeko. Aurreko urte arraroa dela eta bakarrik Atxondora eta Gortizera egin zituzten irteerak. Atxondoko bidegorrian neurketa eta promozio bideoa egin zuten. Azkenik, Gortizeko irteeran faroa eta bunkerren arteko labarrak neurtu eta bi-



deo promozionala landu zituzten. Emaitzak eskanerraren oso antzekoak dira, hau da, "Street View"-a.

A: 3D irudien trataeren softwarea. Drone edo beste edozein gailuko argazkiekin errealtate birtual bat sortzen du. Software honekin, laser barik eta argazkiekin soilik, neurgarriak diren 3D modeloak sortzen ditugu. Edozein argazki diodanean zera diot: smartphone, Gopro, betiko kamera, dronen irudiak...

E: 3D inpresora. Errealtate birtualeko irudiarekin maketak egiteko gai gara. Baina, gure proiektu pertsonalak aurrera ateratzeko laguntza ere ematen digute eskola orduetatik kanpo, atsedendiak eta abar aprobetxatuz. Aurreko urtean nobere logela apaintzeko moduko piezak inprimitu ziren.





TAILER IKASI PROIEKTUA HIRUGARRENEZ

Hirugarren ikasturtea du jada Tailer Ikasi proiektuak Unamuno Institutuan. Baina, zertan datza proiektu berritzaile hau? Zeintzuk dira bere onurak? Nor ari da egitasmoan parte hartzen? Galdera horiek eta beste asko argitzeko protagonistekin hitz egin dugu.

Egileak: Gari Santamaria, Aitzol Arnaiz eta Adrián Peñalver

Elkarrizketatuak: Brais, Darlene, Niko eta Ainhize.

Josu irakasle eta ikasketaburuak ondo baino hobeto ezagutzen du ekimena, horregatik jo dugu lehenik berarengana.

Nola sortu zen Tailer ikasi proiektua?

Hezkuntza derrigorrezkoa da ikasleek 16 urte betetzen dituzten arte, edozein profil edo gaitasun dutela. Horiek horrela, institutuek ikasketak burutzeko abaguneak eman behar dizkiete ikasle guztiei titulazioa lor dezaten. Duela hiruzpalau urte klase arruntekin bat ez zetozen ikasleekin zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, ez baitzituzten klaseak aprobetxatzen. Horrela, zailtasun gehiago zituztenekin 15 ikasleko taldea sortu genuen, saio eta lan egiteko era ezberdinekin. Talde horrek ikasketa osagarriak egiten dituen arren, arlo tradizionalak ere lantzen ditu, matematika, hizkuntzak, biologia... baina eguneroko bizitzako gauzekin harremanetan jarrita. Adibidez, elikagaien propietateak eta jatorriak sukaldaritza-ren bitartez lantzen dituzte, fisika eta teknologia elektrizitatearen bitartez...

Zein da proiektuaren egitasmoa?

Proiektua amaitzean ikasleek bi abagune eskuratzea da helburu nagusia. Alde batetik dibe-

sifikazioaren bitartez DBHa amaitzea eta bestetik derrigorrezkoak diren azken urteak Oinarrizko Lanbide Heziketa bat egiten igarotzea. Lehenengo mailan arazoak dituzten ikasleak sartzen dira taldean eta oso emaitza onak izaten dituzte.

Zergatik da hain txikia TAILERIKASiren eta beste ikasleen arteko harremana?

Ikasle hauek harremanetarako zailtasunak dituzte, eta klase normaletan ez dute haien lekua aurkitzen. Gainera gatazka bat sortzen denean ez dira gai konpontzeko. Gainera, mutil eta nesken arteko aldea oso handia da, 14 ikasletik bi neskak dira. Futbola, adibidez, abiapuntua izan daiteke harremanak hobetzeko, horrek batzen ditu.

Ekimenaren benetako protagonistak ikasleak dira. Entzun dezagun zer duten esateko.

Zer suposatzen du zuretzat tailerikasi proiektuak?

Antzekoekin egotea suposatzen du haientzat proiektuak, ez dute oso gustuko, baina klase

normalak baino hobeak direla diote eta han haiek bezalako asmoak eta motibazioak dituzten gazteak aurkitzen dituzte. Nahiz eta ikasgela ezberdina izan, haientzat normaltasuna islatzen du, beste klase normaletan haiek baitziren ezberdinak.

Zertan da ezberdina tailerikasi proiektua?

Askoz errazagoa dela diote, praktikagoa. Etixerako lan gutxi eta azterketarik ez dutelako. Ebaluatzeko lanak erabiltzen dituzte, sukaldaritzan adibidez, errezeta bat prestatzen dutenean fitxa teknikoak, elikagaien propietateak eta jatorria... informazioa bildu eta idatzi behar dute, eta gero, jakina, ezagutzak praktikan jarri errezeta sukaldatuz...

Nola kalifikatuko zenukete Unamunok eskaintzen dizuen laguntza?

Haien ustez, proiektu aparta da, baina haien ikasteko interes faltak irakasleak motibazioa galtzera bultzatzen ditu, eta giroa asko zailtzen du. Laguntza ondo dago, eta beharrezkoa dela uste dute, baina guztien bultzada behar da proiektuak porrot egin ez dezan.

Lagungarria deritzozue? Asko ikasten duzue?

Asko aprobetxatu ez arren, ikasten dutela diote, bereziki elektrizitatean, zirkuituak, elektronika... eta, gainera, etorkizunean zikloren bat egiteko oinarria ematen diela uste dute.

Zeintzuk dira zuen etorkizuneko asmoak?

Galdera hori egitean espero genuena ikasle guztiek oinarritzko OLH bat egin nahi zutela esatea zen, geroago ziklo ertain bat prestatu ahal izateko. Horregatik harritu gintuen ikasleen erdiak baino gehiagok DBHra itzultzeko asmoa izateak. Bi "talde" nagusi zeuden, institutotik alde egin nahi dutenak, astuna deritzotelako, eta institutua amaitu nahi dutenak, hango giroa gustoko dutelako.

Proiektua amaitzean sukaldaritzan zein elektrizitatearekin loturiko zerbaitetan jarraituko duzuela uste duzue?

OLH egin nahi duten ikasle gehienek elektrizitate arloan ikasi nahi dute, klasean egindakoa interesgarri aurkitu baitute. Ikasle batzuek ez dute batere argi, baina beste batzuek, argi dute zer ikasi nahi duten, Jimmik, adibidez, oinarritzko OLH bat egin nahi du, ondoren elektromekanikako erdi mailako zikloa egin ahal izateko.

Eta, irakasleak? Zein da haien iritzia?

Ezberdintasunik nabaritzen duzue ikasle hauengan?

Normalean ikasleek ikasteko zailtasunak dituzte, edo interes falta, horregatik astiroago ikasten da proiektu honetan, ikasgai gutxiagorekin, oinarriak finkatuz. Orokorrean, irakasteko giroa zailagoa da, ikasle konfliktibo gutxi batzuek klasea iraultzen dutelako, eta beste ikasleek jarraitzen dietelako.

Nahiago zenuke proiektu honen parte ez izatea eta DBHn matematika klaseak ematea?

Biak dira garrantzitsuak, beste geletan irakasgaiak sakonagoak dira, errazagoak, lasaigoak, baina proiektu honetan emaitzak lortzeak asko ematen du, ikasle berezi bat lan egiten ikustek ondo egindako lana islatzen du eta.

Zeintzuk dira proiektu honen abantaila aipagarrienak?

Gauzak errazagoak direnez hobeto ulertzen dituzte, klaseko azkenak ez izatea ahalbidetzen du, eta arlo ezberdinetan baliabideak lortzeko haien autoestimua hobetzen du. Arlo praktikoagoak dituztenez, motibazio handiagoa dute eta horrek lan giroa asko errazten du.

Zer ikasi zutenen ikale hauei klase eman ahal izateko, eta zer ikasi duzue proiektu honen parte izanda?

Sukaldaritzan irakasteko, jakina, sukaldaria izan behar zara, baina beste arloetan ez duzu ezer berezirik ikasi behar, institutoak aukeratzen zaitu, zure ordutegien edo gaitasunen arabera.



MIKEL MARTIN. TXAPELDUN

EUSKOSKILLS 2021ean

2021eko urrian EuskoSkills Txapeleketa ospatu zen Iruneko FICOBAn, Gipuzkoako Erakustazokan. Txapelketa Lanbide Heziketako edozein ziklotan matrikulatutako ikasleei zuzenduta dago; hots, Oinarrizko Lanbide Heziketa zein Erdi eta Goi mailako Lanbide Heziketako ikasleei.

Parte hartzaileek 23 urte izan zitzaizkieten gehienez, espezialitate batzuetan izan ezik. Guztira hiru egun iraun zuen ekimenak. Lehenengoan, aurkezpen-ekitaldia egon zen parte-hartzaile zein epaimahai guztiei zuzendua. Hurrengo bietan, lehiaketari berari ekin zioten ikasleek, goizez eta arratsaldez. Bukaeran, epaimahaiek puntuazioak erabakitakoan, sari banaketa egon zen. Eta bertan egon zen gure ikastetxeko Mikel Martin.

Mikel garaile atera zen bere espezialitatean -Web Garapenean-. Gainera, bide batez, 2022ko SpainSkillserako sailkatu zen. Bigarren zein hirugarren egunean ikasle asko eta asko egon ziren bisitari, proba guztiak gertu-gertutik baitzeuden ikusgai. Ekitaldia streaming-en bidez emititu zuten; bertan parte-hartzaileak trebatzen ikusi ahalko dituzue eta baita hainbat elkarrizketa ere. Youtube-n daude ikusgai bideoak, "EuskoSkills 2021" bilatuta, erraz topatuko dituzue.



Kaixo, Mikel, eta zorionak, txapeldun!! Lehenengo eta behin, nola prestatu zenuen proba aurreko asteetan?

Ikasturteko bigarren astean jakin nuenean EuskoSkillsera joango nintzela, ezusteko samarra izan zen. Gero, lehiaketan sar zitekeen pixka bat errepasatu nuen, jakin-minez, eta ariketa bat egin nuen, duela urte batzuetako EuskoSkillsen sartutakoa.

Zer iruditzen zaizkizu lehiaketaren ingurukoak? Inaugurazioa, sari-banaketa, otorduak, hotela...

Ekitaldiaren aurkezpena oso ondo egina zegoen, profesional samar zirudien, eta, ez dakit, garrantzitsu sentiarazten zintuen. Sari-banaketa dibertigarria izan zen, baina nahiago nukeen saria eman aurretik nork irabazi zuen esan ez baligute, gaiari zirrara handiagoa emateko.

Zer nolako harremana izan zenuten lehiakideen artean?

Parte-hartzaileen arteko harremana oso arina izan zen; gustu guztiak berdinak genituela ematen zuen, eta nik uste dut denok oso estu ibili ginela.

Nola joan zen lehiaketa? Noiz pentsatu zenuen txapeldun atera zintezkeela?

Egia esan, ez nuen inoiz irabazterik espero izan, zeren, denbora amaitu zenean, zerbaitek huts egiten zidala sentitzen bainuen, lehenago gertatu gabeko zerbaitek, alegia. Eta berria eman zidaten arte benetan uste nuen ez nuela irabaziko.

Zein da zure helburua “SpainSkills 2022”ri begira?

Lehen oztopoa igaro ondoren, azkene-raino iristen saiatuko naiz; behin hona iritsita, ahalik eta hoberen egiten saiatuko naiz, gogo handiz. Gerta daitekeen okerrera da hurrengo helmugara joan, galdu eta bidean ikasi izana.

Azkenik, Lanbide Heziketako ikasleei parte hartzeko gomendatuko zenieke?

Idea aurkeztu zidaten lehen aldi-
an gustatu egin zitzaidan, baina ez nion garrantzi handirik eman, Orain, behin joanda eta ezagututa, ordea, benetan gomendatzen dut, oso esperientzia aberasgarria izan da. Joateko aukera baduzue, aprobetxatu.



EZEKIEL



NAIARA TRAPOTE

Maitasuna, sexua, lagunak, parrandak... gaztea bazara edo horrela sentitzen bazara, bete-betean asmatuko duzu liburu hau irakurrita. Liburu honek mila sentsazio desberdin ekarriko dizkizu. Ezekielek eta bere lagunak bizi izandakoa sentituko duzu, nerabe arruntak bezalakoak dira.

LEIRE PANOZO

Ez zait gustatu Ezekiel nobela pertsonaia batzuen jarreragatik; hau da, ez ditut gustukoak izan kapitulu batzuk, adibidez, T-shirt (14.a) kapituluan Ezekielen koadrilako mutilak nesken titiak nola mugitzen diren ikusteko geratu ziren.

IRATI ARANA

Nik uste dut apustua egitea ideia txarra dela, hasieratik zerbait txarto aterako zela ikusten zelako.

HAIZEA GONZALEZ

Kontamoldea, nire ustez, piska bat astuna da. Interesgarria den gaia hasten denean, moztan dizu beste gai batekin, hain erakargarria ez dena; eta irakurtzeko interesa galtzen da.

SERGIO PRINCIPE

Nire ustez, Ezekiel oso dibertigarria eta interesgarria da. Nobela honek erakutsi dit adiskidetasuna oso garrantzitsua dela eta benetako lagunak hor daukela beti. Gainera, pertsonaiak bitxiak direla pentsatzen dut. Liburuan zehar horiek egiten dituzten gauzak irakurtzea eta imaginatzea intrigazkoak direla iruditu zait.

NAIA EGUZKITZA

Ezekiel 14 urte dituen mutila da. Gustatzen zaizkion gauzen arten neskak daude. Beraz, koadrilakoek apustu bat egitea erabaki dute eta neska bati musu bat ematen dion lehenengoak irabaziko du. Zer gertatuko da? Nork irabazi du? Amaiera ez da espero daitekeen bezalakoa, ez da era hau Hala bazan... formularekin amaitzeko modukoa. Harrituko zaitu!

ERIC JIMENEZ

Azkar irakurri ahal den nobelatxoa da... Orokorrean, tentsioak eta haserreak gertatzen dira. Istorioa hobetuz doa liburuan zehar, baina, nire ustez, oso matxista da.





ESKURTZE 3 BARNETEGITAN

Ondo dakizuenez, azken ikasturteotan ez da izan aukerarik Euskal Giroitze Barnetegietara joateko; baina, zorionez, berriro itzuli dira. Eta guk aukera hori aprobetxatu nahi izan dugu, 3 lekutara joanez. Esperientzia paregabea izan da: benetan, joateko aukera baduzue, zoazte! pila bat ikasiko duzue!



1.A, 1.B eta 1.Cko ikasleek idatzitakoa

HONDARRIBIA



22 ikasle joan ginen Hondarribiko aterpetxera. Hondarribia Gipuzkoan dago, itsasaldean, Irun eta Hendaia-ren ondoan, Bidasoa ibaiaren bazterrean. Heldu bezain laster egin genuen erronka bat: armiarma-sare itxurako soka batzuen erdian bihurkina zegoen; denon artean sartu behar genuen botila baten barruan. Aterpetxea ikusi ostean bazkaldu, eta Hondarribiko porturantz abiatu ginen jolastera. Hurrengo egunean Natalia eta Leirerekin hainbat jolas egin genituen.

Bazkalondoan sorpresa bat eman ziguten: itsasontzi batean osteratxo bat! Gure hirugarren egunean kalera jaitsi ginen jolas bat egitera: herriko leku batzuk eman zizkiguten paper batean idatzita eta mapa bat. Leku horiek aurkitu behar genituen errealitatean. Arratsaldez hainbat jolas egin genuen. Eta azken gaua zenez, disko-teka izan genuen 23:30ak arte.

Azken egunean maleta egin genuen gosaltzera jaitsiurretetik. Eta goizean hizkuntzen jolasa egin genuen: leku banaren argazkia eman ziguten ikasle taldeoi. Leku hori aurkitu, eta izpi ultramoreetako linterna batekin sinbolo bat aurkitu behar genuen bertan.

Sinbolo hori aurkitutakoan, hizkuntza guztiak zeuden lekura joan, eta zegokigun hizkuntza (gure sinboloarekin lotuta) hartu behar genuen. Eta gero, denon artean, hizkuntzak ordenatu behar genituen, gehien hitz egiten denetik gutxien hitz egiten denera. Bukaeran, triste, autobusean sartu, eta Zerainen zeudenen bila joan ginen denok batera Bilbora joateko.





ZERAIN

Zerain herri txiki-txikia da, 260 biztanle ingurukoa eta denak euskaldunak. Aterpetxea erdi-erdian dago, elizaren azpian. Duela gutxi berriro dute, eta oso ondo dago. 22 ikasle ginen eta 2 irakasle. Herrian badira bi leku bereziak guretzat: Pilotalekua eta Hilerria. Pilotalekuan ibil gintezkeen aisialdian jolasean eta jokoan. Eta hilerrian ederto pasatu genuen Arimen Gaueko kontuekin. Eta, gainera, zatitsu bati (sagu moduko bat) hileta eta dena egin genion. Zenbat barre!

Aran, Iker eta Idoia izan ziren gure begiraleak, eta haiekin egoten ginen egunaren parte handiena. Gorka zen gure sukaldaria eta oso otordu goxoak egiten zizkigun. Etxean eginiko pizza eta kalderetea bikainak izan ziren! Hainbat joko eta jolas egin genituen. Batzuk herrian barrena egin behar genituen, eta horrela konturatu ginen zeraindarrak oso euskaldunak direla. Segurara ere jaitsi ginen azken egunean eta hori ere oso polita zen. Gu gauez gorde-gordeka jolasten ginen, eta fenomeno pasatzen genuen, hainbeste non azken gauean ez baikeuen egin nahi izan diskotekarik, gorde-gordeka berriro jolasteko. Gure arteko harremanak asko hobetu ziren, eta elkar ezagutu genuen askoz hobeto. Eta euskara lehen baino gehiago maite dugu.


GOROZIKA

19 ikasle joan ginen gure bi irakaslerekin. Gorozika Urdaibain dago, Muxika herriko auzo bat da, baserriez osatua. Lehenengo egunean pista-jokoan ibili ginen. Eta gero aurkitutako pistak azaldu genituen. Otorduetako taldeak ere sortu genituen. Bazkalondoan txokoan denbora libre izan genuen. Goizean itsasontziaren jolasa egin genuen, eta gero Dixit jolasa. Euskararen inguruan ditugun sentimenduak idatzi eta adierazi behar genituen. Arratsaldean, berriz, ibaira joan ginen itsuarena egitera. Jolas horrek eragin zizkigun sentimenduak adierazi genituen bueltan. Arratsaldea amaitzeko Sua izeneko jolasean ibili ginen. Afaldu eta gero diskoteka egin genuen musikarekin; aulkien jolasaz ere makina bat barre egin genuen. Gosaldu eta gero masaje berezia egin genuen, eta puxika-jolasa ondoren. Eta gero joku-piezak egin genituen, bakoitzari zerbait polita emateko.





KOMIKIAK

Euskal Herriko Geografiaren inguruko KAHOOTa

Gure lurraldea ez da zabalegia km2-tan baina, hala ere, izugarritzko aberastasuna dauka giza geografia zein geografia fisikoari dagokionez. Galdetegitxo honekin geure eskualde, ibai, hiri eta mendien ezagutzan sakonduko dugu apur bat. Erronka botatzen dizuegu hasi aurretik, ea asmatzen dituzuen 10 gutxienez!

1. ZEIN HERRIK DAUKA BIZTANLE GEHIAGO?
2. ZEINTZUK DIRA DONOSTIAKO BI MENDIAK?
3. NON DAGO OGOÑO MENDIA?
4. ZEIN MENDILERRO DAGO ARABA ETA GI-PUZKOA ARTEAN?
5. NON DAGO DONIBANE LOHITZUN?
6. ZEIN UDALERRI EZ DAGO ARRATIA-NERBIOI ESKUALDEAN?
7. ZEIN IBAI PASATZEN DA TOLOSATIK?
8. NON JAIOTZEN DA IBAIZABAL IBAIA?

GALDERA HAUEK ETA GEHIAGO
QR KODEAN!

Kahoot!

JOKATU HEMEN!



BERRI FALTSUEI BURUZKO DEKALOGOA



Kirikiño Ikastolako Hedabide Tailerreko Ikasleak

Azkenaldian, sare sozialetan berri faltsu asko partekatzen direla ikusi dugu. Batzuetan, zaila izan daiteke egiazko berria eta gezurra desberdintzea; horregatik beharrezkoa ikusi dugu berri faltsuei buruzko dekalogoia osatzea denok identifikatu ahal izateko.

- 1.** Fake Newsak albiste faltsuak, bu-loak edo zurrumurruak dira.
- 2.** Albiste faltsuak zabaltzeak ondorio oso larriak izan ditzake, adibidez, gizartean istiluak sortzea edo ospe txarra zabaltzea.
- 3.** Ez dira fidagarriak, jende guztiak egin edo editatu ahal dituelako.
- 4.** Fake newsek atentzioa ematen digute gertakari harrigarriak kontatzen dituztelako baina ez dakigu egia diren edo ez.
- 5.** Albiste polemikoak izaten dira, gizartearen haserrea eragiten dutenak.
- 6.** Fake news bat gezurra ala egia den jakiteko testuan ortografia-akatsik, irudiak pixelatuta edo editatuta dau-den begiratu behar dugu.
- 7.** Berri faltsu mota desberdinak daude, baina guztiek dute elementu komun bat: berehala albistea biral bihurtzen direla.
- 8.** Fake Newsak, normalean, benetako berriak baino erakargarriagoak dira, bere helburua birala bilakatzea delako.
- 9.** Informazio iturria berria bada eta ez baditu jarraitzaile asko, ez fiatu. Sinietsi baino lehen, beste toki fidagarri batera joan eta alderatu biak.
- 10.** Fake newsak identifikatzea erraza da: sen ona baino ez da erabili behar.



ADI! TITULAR FALTSUAK!

Kirikiño Ikastolako material lapurraren misterioa

Kirikiñon ziber-eraso bat egon da

Ikastolatik ateratzea lortu zuen Manuelek?

Sinestezina: DBH1 mailako ikasle guztiek errepikatu dute

Kirikiño Ikastolan meteorito bat jausiko dela iragarri du NASAk

Kirikiño Ikastolako DBHko ikasleek ostiralero pizza edukiko dute jantokian



Youtube-n, Twitch-en eta Instagram-en ere gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin!

BIME azokan izan ginen marketin eta publizitateko eta 3D animazioak eta bideo-jokoetako ikasleok, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzeari buruz Harrobia ikastolak antolatutako tailer batean; saioaren asmoa sare sozialetan euskal hiztunen komunitate bat sortzeko ahaleginari bultzada bat ematea izan zen. Saio interesgarria, bene-benetan!

Ni ez naiz musikaria, baina 3 disko dauzkatz; ni ez naiz emakumea, baina emakume bat bezala janzten naiz; ni ez naiz argazkilaria, baina sariak irabazi ditut argazkilari moduan; ni ez naiz diseinatzailea, baina nire arropa-marka propioa daukat. Horixe izan zen Eduardo Gaviñak, Yogurinha Borova izen artistikoaz ezagun denak, BIME azokan helarazi zigun mezueta bat.

BIME Bilboko Euskalduna jauregian ospatu zen urriaren 27tik eta 29ra bitartean eta hiru egunetan zehar hainbat saio izan ziren musikari, marketinari, ekitaldien antolatetari eta teknologiarri buruz. Ostiraleko saioetako bat Harrobia ikastolak antolatu zuen, Azkue fundazioa eta Game Erauntsiaren laguntzaz, streaming-ari buruz; saio hark parada ezinhobea eman zigun Harrobiako Publizitatea eta Marketin, eta 3D animazioa eta bideojokoetako ikasleoi saltzeko produktuaren beharraz eta streaming saioak egiteko baliabide teknikez ikasteko.

Game erauntsiko Garikoitz Larrañagak jakinarazi zigunez, twitch dagoeneko katalanez erabil daiteke; izan ere, katalanek sinadurak biltzeko kanpaina bat martxan ipini eta 3.000 sinadura biltzea lortu zutenean, Twitch-ek berak katalanaren aukera zabaldu zuen hizkuntza-menuan. Euskal Herrian, dagoeneko, 4.500 jaso dira; beraz, laster euskaraz egotea espero da. Baina hori ez ezik, Garikoitz-en tailerrak streaming saio bat egiten ere irakatsi zigun. Hasteko eszena batzuk sortu beharko genituen, eszenak bideoan aldeztu aurretik diseinaturiko karatulak dira; diseinatu beharrekoak dira hasierako karatula, aurkezpena, badaezpadako arazo teknikoaren karatula eta bukaerakoa. Diseinuak egindakoan OBS software librean sortutako aplikaziora igoko ditugu, grabatzeko eta editatzeko erabiltzen dena, eta zuzeneko saioak horren bitartez egin daitezke.

Grabatzeari ekin baino arinago, zuzeneko emanaldia hainbat plataformatan egin nahi badugu, Instagram,

Twitch eta You Tube esaterako, ezinbestekoa izango zaigu restream.io-ren laguntza. Honekin nahikoa ez eta OBS-k aukera eskaintzen du Twitch-en txat-a streaming-ean azaltzeko, zuzenez. Halaber, hizlari anitzak batera ari direnean ere, aukera eskaintzen du OBS-k pantailan kamera beste hizlari bat azaltzeko, baina obs.ninja erabili beharko genuke horretarako.

Edonola ere, streaming bat egiten hasi baino lehen produktua, marka bera ere sortu beharko litzateke. Yogurinha Borovaren kasuan, argi dauka bi publikotarako produktua saltzen duela: batetik, aniztasunaren aldeko aldarria euskaraz eta umeen artean zabaldu nahi duela; bestetik, trabestismoa kontsumitzen duen helduen komunitate bat ere badago; horri esker, esaterako, Placebo musika talde famatuarekin lortu zuen harremanetan jartzea eta proiektu komun bat egitera heldu ziren. Den-dena sare sozialen bitartez eta sare sozialei esker. Haatik, oraindik zuzeneko saioak sareetan egiten hasteko beste bi gauza

falta zaizkigu, lehenengoa komunikazio-dohaiak dira: entseguak mikrofono aurrean, identifikatuko gaituzten hasierako eta amaierako agurrak, gidoia aldeztetik diseinatzea eta entseatzea, ez-ahozko komunikazioa lantzea... Bestea espazio fisikoa litzateke, baina horretan Harrobiako ikasleok KoopSF34 elkartearen laguntza daukagu, pertsona migranteen artean ekimenak martxan ipintzen dituen taldea; beraien iniziatiben artean dago, besteak beste, bideo-saioak egiteko estudio bat muntatzea. Bisitan izan ginen eta gure lehenengo saioak ere egin ditugu KoopSFren instalazioetan.

Honenbestez, Harrobiako ikasleok esan dezakegu aitzakiarik ez daukagula ikus-entzunezko sareetan (Instagram, You Tube edo Twitch) ez jarduteko, produktua, komunikazio-dohaiak, azpiegitura, ezagupen teknologikoak dagoeneko baditugu eta.

Bukatzeko, ekar dezagun gogora Euskaraldiaren leloa, Gehiago, Gehiagotan, Gehiagorekin eta zabaldu diezazkiogun teknologiararen ateak euskal hiztunen komunitateari!



GURE KOSTA EZAGUTZEKO ONENA



Beñat Cilveti eta Gaizka Rico

DBHko 4. mailan biologia ikasten dugun ikasleok Azterkosta programaren proiektu batean sartu ginen, gure kostaldeko urak ezagutzeko proiektu batean zehazki. Proiektu hori Getxoko Azkorri hondartzara joatean eta bertako ura eta biodibertsitatea aztertzean zetzan, gure kostaldea hobeto ezagutzeko. Horretarako, Azterkostako eta gure ikastetxeko materialen laguntza izan genuen, eta luzamendu gehiagorik gabe, lanari ekin genion.

Gure mailan, biologia ikasten dugunok asko gara, horregatik irteera bi egunetan banatu behar izan genuen, urriaren 21ean batzuk, eta besteak urriaren 25ean, baina 4. mailako biologia ikasle guztiok horra joan ginen.

Egun eguzkitsu eta bero batean, goizeko zortzi eta erdietan Bizkaibusa Deustuko Bidarte zentro zibikoaren aurreko geltokian hartu genuen Bilboko La Salleko lau garren mailako ikasleok. Hurrengo txandakoak, ordea, pixka bat beranduago irten ziren, ikastetxeko ordutegietara moldatu ahal izateko. Bilbotik abiatuta, Nerbioi ibaitik zehar Getxoko Andra Mari auzora zihoan 45 minutuko autobus bidaia baten ondoren, Azkorri-Gorron-datxe hondartzara iritsi ginen. Hondartza hori harea iluneko eta harriz beteriko toki aparta da, inguruan ez dago eraikinik, hondartza basatien modura. Hondartzako bisitari bakarrak gu ginen, handik paseatzen edota arran-tzatzen ari ziren bertakoak izan ezik. Hondartzaren biodibertsitatea, gaur egun gero eta urriagoa bada ere, besteak beste apo lasterkariek osatzen dute.



Inguru hartan landa-azterketa bat abian jarri behar genuen eta sei pertsonako lan-taldeetan banatu ginen. Irakasleek talde bakoitzari hondartzan zehar zeuden ur putzuen laginak hartzeko eta uraren garden-tasuna, PH-a, nitratoa eta abar miazteko panfleto batzuk eta tutuez, pilulaz, pipetaz eta abarrez betetako plastikozko ontzi bat eman zioten.

Uretatik eskuratutako emaitzek bertan nahiko bakterio zeudela, ura oso gardena zela eta oxigeno kopurua eta tenperatura ona zela adierazten zuten. Egindako txangoari esker, DBH-ko laugarren mailakoek marea-arteakoa itsasgoran urak estaltzen duen tarte eta mareaz gaindikoa itsasgoran uretatik gertu geratzen den tokia direla ikasi genuen. Halaber, nitratoak kontzentrazio altuetan uretako animalien heriotza eragin dezakeela eta fosfatoak lur gaineko uretan algak ugaritzea eragiten duela ikasi genuen.

Hartutako emaitza guztiak paper batean idatzi behar genituen, geroago Azkorriko udalari entregatuko genizkionak, kostaldeko uretan arazoren bat zegoen ala ez



ohartarazi. Beraz, bakterio kopurua uretan ondo neurtzeak garrantzi handia zeukan. Izan ere, haietatik kopuru handia egonez gero, ura oxigenorik gabe geratu ahal zen eta horren ondorioz hor bizi ziren beste izakiak hil zitezkeen.

Azkenean, hamaiketakoa jan eta gutxi gorabehera ordubeteko aisialdixoa izan ondoren, hamabi eta erdiak aldera itzultzeko autobusa hartu genuen, txangoari amaiera emanez.

Azterkosta irtenaldia oso interesgarria eta didaktikoa izan da, 14-15 urteko nerabeetara egokitutako azalpen eta jarduerekin. Txangoari esker, orain DBHko laugarren mailako biologia ikasleok badakigu zein diren kostaldeko bioaniztasuna ez dela desagertuko ziurtatzeko hartu behar diren neurriak, besteak beste uraren tenperatura edo nitratoaren ehunekoa ezagutzea. Ikasle guztiok txangotik oso pozik atera ginen eta egon ziur ikasitakoa gogoan izango dugula.





Gure arbasoen bila



Aurten Santi Mamiñera egindako txangoa kontatzea interesgarria izango zela iruditu zaigu. Gure helburua historiaurreko, paleolitoko, gizakien bizitza eta denboran zehar egon diren klima eta paisaia aldaketak ezagutzea eta batez ere txangoan primeran pasatzea zen. Joan aurretik, gaia gelan lantzeaz gain, arte saioetan denon artean patioko horma apaindu dugu. Itxaso eta Nagore andereñoen laguntzaz horma “paleolitoan” margoztuta dagoela ematen du. Ikusgarria geratu da!

HISTORIA ETA KOKALEKUA

Santi Mamiñeko kobazuloak, Basondo auzoan kokatuta daude, Kortezubin, Gernikatik oso hurbil. 1916an inguruneke ume batzuk kobazuloetan sartu ziren jolastera eta kasualitatez pasadizo bat aurkitu zuten. Pasadizo horretatik sartu zirenean gune batera heldu ziren eta bertan margo batzuk aurkitu zituzten, baina umeek ez zioten inolako garrantzirik eman. Baina denbora gutxi barru pasatu eta

gero, gertatutakoaren berria zabaldu zen eta umeek aurkitutako margoak labar-pinturak zirela baieztatu zuten. 2008an UNESCOk kobazuloak gizateriaren ondare izendatu zituen. Hainbat urtez jendearentzat ikusgai egon ondoren, gaur ezin dira osorik bisitatu. Horren ondorez “Santimamiñe, milaka urteko paisaia” izeneko bisita birtuala egiten da.

🔥 SUA EGITEN 🔥

Kobazulora eta bisitaldi birtuala amaitu eta gero, eguneko une interesgarri ete dibertigarriena heldu zen. Momentu batez, paleolitoko gizakiak bezala sua egiten saiatu ginen, horretarako benetakoak diren erreplikak erabili genituen, besteak beste, silex harriak. Ehiza tresnaren bat egiten saiatu ginen baita. Asko ahalegindu arren ez genuen lortu sua egitea, bakarrik ke pixkatxo bat. Ze gogorra historiaurreko gizakia izatea!



BITXIKERIAK

AFRIKAKO HEZKUNTZA SISTEMA

Chidera 3.B

Afrikan milioi bat haurrek baino gehiagok hezkuntza uzten dute gurasoek horretara behartzen dituztelako. Afrikako guraso askok ez du nahikoa seme-alabei eskolako soldata ordaintzeko. Ia guraso guztiek saltzen dituzte seme-alabak haiek baino zaharrago batekin ezkonaraziz, eta seme-alabak dirua lortzeko erabiltzen dituzte. Eskolatik irteten diren ume ia guztiek arazo psikologikoak dituzte.

Pertsona batekin ezkondu ziren seme alabetako batzuek ez dakite etxeko lanak egiten dituztela, ikasteko hain gutxi direlako, eta bere senar gehienek tratu txarrak ematen dizkiete.

Ezagutzen dut norbait, gurasoek ez ziotena ikasketak egiten uzten, ez baitzuen diru nahikorik eskolako gastuak ordaintzeko, eta bera baino zaharragoa zen gizon batekin ezkondu zen.



IMITAZIOA

Gizakiaren gaitasunik hoberena imitatzea da, jaiotzen garenetik hil arte pila bat gauza imitatzen dugu. Adibidez, txikitan gure gurasoek egiten dutena imitatzen dugu, hala nola, hitz egitea, ibiltzea eta beste hainbat gauza barneratzen ditugu, adibidez gure izaera. Imitatzeko gaitasuna oso onuragarri dirudi, baina, ona al da?

Egun batean, kalean paseatzen ari nintzenean, ume batzuk "1.2.3 Carabimbonban" jokatzeko ari ziren, baina ez zen bertsio originala: jokalaria batek txarto jokatzeko bazuen, pertsona horrek ostiko asko jasotzen zituen eta negar eginez amaitzen zen. Gainera, 6 urte inguruko umeak ziren eta pena asko eman zidan, baina haiek joko hori jolasteak bere arrazoia dauka. Duela egun gutxi, Netflix-en telesail oso famatu bat atera zen, "Txipiroiaren jokoa" izenekoa. Telesail horretan pertsona dirudun batek, 100 pertsona txiro bahitzen ditu. 100 pertsona horretako bakarrik 1 bizirik aterako da, beste guztiak, ume jolasak jokatzean ez badute irabazten, makina batek hil egingo ditu.

Hori zen 6 urteko umeek egin zutena, baina hil arren, elkar jotzen zuten. Telesaila imitatzen ari ziren. Gertaera hori imitazioaren kontu bat da, eta gertaera txar bat da, baina horrek ez du esan nahi imitazioa txarra denik. Nire ustez, txarto dagoena da, umeek edozein gauza ikusi ahal dutela, eta umeek imitazio-gaitasuna gehiago erabiltzen dute besteak baino, beraz, edozein gauza imitatu ahal dute.



DENBORAN BIDAIATZEA?

Kosmonauta batek bi segundu aurreratu ditu denboran. Hau da, bere bizitza gurea baino urrunago dago. Adituek esaten dute urrunago joan ahal dela denboran, baina, denboran atzerantz joatea zailagoa dela. Einstein-en erlatibitatearen teoriak ere hori esaten du, orduan, berretsita (konfirmatuta) dago.

Datu ez hain interesgarriak:

- 1: Kosmoauta Serges Krikalev deitzen da.
- 2: Errusiakoa da.
- 3: Espazioan denbora gehiago egotearen bigarren postuan dago, zortziehun eta hiru egunekin.

Orduan, guzti hau jakinda, pentsatuko dugu magia ez dela existitzen? Seguru asko hau magia iruditzen zitzaigun lehen, baina orain, egia dela jakinda, arruntagoa iruditzen zaigu. Imaginatu etorkizunean jendea denboratik abiatzen. Magikoa, ezta?



ARRAINEN BITXIKERIAK

SAIDA INFESTAS

Badakizue edo inoiz entzun duzue arrainek ez dutela betazalarik? Ba, bai eta, beraz, ezin dituzte begiak itxi. Hala ere, horrek ez die atseden edo lo egitea eragozten. Arrainen %2 hermafroditak direla kalkulatu da, hau da, gehienek bizitzako etaparen batean sexua aldatzen dute; adibidez, taldean ar nagusirik ez dagoenean.



ZERGATIK DUTE ZULOA DONUTEK?

IRATI LAURENZ DBH 1.A

Donuta nazioarteko gozokia da. Ia munduko leku guztietan aurki daiteke, Estatu Batuetako opil ofiziala den arren.

Donutaren izena hitz konposatu bat da: ingelesez «dough» (orea) eta «nut» (intxaurra) hitzen-gandik hartzen du «doughnut»-ak izena.

Donuta, hasieran, opil biribil bat zen; ez zeukan zulorik. Baina arazo bat zegoen: osagaiak zirela eta, erdigunea ez zen behar bezala egosten.

1847an Hanson Gregory marinela konpondu

egin zuen arazoa. Piperrontzi bat hartu zuen, tapa kendu zion eta zulo bat egin zuen donutaren erdian. Eta horrela, oreka guztiz egosita egotea lortu zuen. Hala sortu zen donuta guk gaur egun ezagutzen dugun moduan. Orain, fabrikatzaile batzuek donutari zuloa egiten diote egosi ondoren, nahiz eta normalean egosi aurretik zuloa egiten zaion.



Errimak irudimenarekin erabiliz gero...

Egilea: 6.B taldea

Euskalduna zubian
elefante grisak
Athletic gabarrari
egin dio txisa.

Spotify app-ean
entzun dut kilkerra
Kiss Fm-rako
musika ederra.

Euskadiko orkestran
zenbat matxinsalto!
pianoko tekletan
salto eta salto.

Metroaren ahoan
sartu da lehoia
eta ahaztu zaio
Barik erraldoia.

Ingeles liburuan
zazpi armiarma
eta ikastetxean
piztu da alarma

Kontuz zure atzean
dabil marrazoa
belarjalea da ta
ez da arazoa.

ENTZUN HEMEN!



EUSKARAREN EGUNEKO IRUDI AK





